



DEFENTSARAKO PROZEDURA

Ikusi tramite bakoitzerako epe zehatza hemen:

<https://www.ehu.eus/eu/web/ekonomia-enpresa-fakultatea/bilbao-elkano-gral>

Eskuratu inprimakiak hemen:

<https://www.ehu.eus/eu/web/ekonomia-enpresa-fakultatea/bilbao-elkano-gral-gidaliburuak-eta-agiriak>

IKASLEA

1. Matrikula:

Egin GRALaren automatrikula GAURren aurtengo ikasturterako, oraindik egin ez baduzu.

2. Defentsa-eskaera:

- a) Defentsa eskatu GAUReko GrAL moduluan ("Esleipenak" erlaitza). Datu guztiak egiaztatzea eta, hala badagokio, zuzentzea: izenburua, hizkuntza, konfidentzialtasuna...
- b) Webgunean dagoen inprimakia betetzea, nahitaezko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa bidaltzeko: hiru hitzaldi eta horien laburpenak eta liburutegiaren ikastaroa.

Gainera, webgunean dagoen ADDI baimena bete eta erantsi behar da. : Word dokumentua bete eta sinatu. Zure tutoreari ere eskatu behar diozu sinatzeko. "Lanaren zabalkundea" atalean markatu behar duzu zein lizentziarekin zabaldu gura duzun lana. Aukeratzen duzun lizentzia bat etorri behar da lanaren azaleko orrian jarri duzun logoarekin (honi atxikitako lizentzien dokumentuan dago). Gero Word dokumentua pdf bihurtu behar duzu.

Dokumentazioa inprimakiari erantsitako PDF bakar batean bidaliko da, eta GrALak defendatuko duen ikaslearen izena eta bi abizenak jarriko zaizkio.

3. GRALaren dokumentazioa ADDIra igo, pdf formatuan, posta elektronikoz emango zaizun URLaren bidez.GRALeko zuzendariak hala eskatuz gero, berrikusi ADDIra igotako dokumentazioa.

4. GRALa defendatu, posta elektronikoz jakinarazitako egun, ordu eta tokian.

ZUZENDARIA



1. **Lan guztiak grabatu,** bai eskainitakoak eta bai adostutakoak. Grabatu ikasleen NANak GAUR aplikazioan, GRAL moduluan.
2. **Defentsa baimendu** GAUR aplikazioko GRAL moduluan. Egiaztatu GRALaren datu guztiak zuzenak direla: izenburua, hizkuntza, konfidentzialtasuna etab.
3. **Balorazio-txostena egitea eta GAUR aplikazioan sartzea.**
4. **Dokumentazioa berrikusi,** ADDItik iritsitako estekaren bidez, eta onespena eman, hala badagokio.

EPAIMAHAIA

1. **Ebaluatu** esleitutako GRALak. Epaimahaikideak GRAL bakoitzaren memoriara sartu ahal izango dira, posta elektronikoz jasoko duten ADDIko esteka bat erabiliz. Defentsaren eguna, ordua eta lekua jakinaraziko zaizkie.
2. **Aktak sinatu.**

Kalifikaziorako aktak digitalak dira eta GAUR aplikazioan daude. Hiru sinadura behar dira **akta itxi** ahal izateko. **Ez jarri ohorezko matrikularik**; kalifikazio hori helbide honetan eskatu behar da: aranzazu.vega@ehu.eus. Deialdia amaitu ondoren, Gradu Amaierako Lanen Batzordeak ebatziko ditu jasotako eskaerak.